



*Txeřena Teresatxoren zirikatzaļe.*—Negaręzko erbeste onetan bizi garean arte arerioz beteta gagoz. Kistar-lkasteak dirakaskumez, arerio andienak iru dira: ludia, txeřena ta aragia.

Gaiztoena, ofaitiņo, txeřena (diabrua), ilundietako gogoa. Jainkoak eskuzabalez emoniko atsegintoki ta bertako ogasun gustiak bere ařokeriagaitik, altsuaren izaręn gaņetik jaři gura izan ebalako galdu ebazan eta eřai-baręnak ondamu-zomořoak mařaskauta daukoz. Zorionera deituak direanak, bera baixen zoritxařekoak izan daitezana, ondatu nayan zoli dabil.

Txeřenak gogor zirikatzen gaituna Jaunak berak esanda dakigu. Bere ziltzaldiak goitu ta biotz-adimenetan sortuten daukuzan asmo ta burutasun zantařak uřin jaurtzeko zer egin bear dogun be bai: Eten barik otoi egin.

*Zagoze itxařik, eta otoi egizue, ziltzaldira etori etzaitzen, diņausku. Zagoze gartsu ta zur, dirakurgu Idazti Deunetan; zuen arerioa, leoya ořuka lez, inguruan dabil nor iruntsiko. Jainkoaren izkiluak jantzi egizuez, txeřenaren mařukeriari gogor egiteko.*

Ludian txeřenak geyen zirikatu dabezanak deunak izan dira. Oneikaz daukoz buruka izugařiak. Buruauste itzalak emoten dautsoezalako gogaikaři yakoz. Bere baru zitala amoru-garętan ipinten dauenak onexek dira.

Gure Teresatxo deunari eutson amoru bizia jayo-auretik be erakutsi eban. Aitatuko dogun gertaera onek argiro darakus.

Gau baten Zeli'e'k, Teresatxoren amak, *Deunen Bizitzak* irakurten ekion. Bat-batera arako pistitzar baten erpekadea lakoxe zartada oarı eban sorbaldan. Lenengotan gorputzeko azur



-aragiak dardar egin eutsen, bildufez. Gero, Jaunagan uste osoa eban-eta, laster etori zan lengo baretasunera. Gaizkiñaren adarkada ofen ikufa, ofaitio, ulerkatxa yakon.

Jayo ta laster be iya beste aldera eroan eban eriotz baltzaren atzamar artean ipiñi eban.

Geroago, amabost ilabete ebazala, Martin-andrea, bere alaba txikia seaska lirañean lo-zuruka itxita, goiz-goxetik, ekan-dua eban lez, jaupa (meza) entzuten joan zan. Etxera zanean, gauza arifaria ikusi eben bere begiak. Seaska liraña itzulirik. Eta bere baruan lotan laga eban txikia non? Oe andiaren alboan egoan jarleku jaso baten, mixiña antzera kukurtuta, lotan edo aingeruakaz amesetan.

Zelan jausi ete zan? Zelan ez ete eban miñik artu? Nok ipiñi ete eban jarlekuan? Ezin eban igari nor izan leitekenik. Bere biotz samufa, baña, berez joyan jaunagana-ta, Berak zaindu izango ebala uste eban.

Txeñenak, izan be, gure gogoak ondatzea gura dau. Baña Jaunak gizon bakotxari bere aingeru jablea emon dautso. Gurutz Jon deunak diñoan lez, geure artzain zintzoak dira. Gu otsoakandik, au da, txeñenakandik zaintzen gaituenak eurak doguz. Eta garai artan txeñenak amofu biziz seaska itzuli ta Teresatxo luñera irauli afen, jarlekura jaso ta lozofotan ipiñi ebana gotzon jablea izan zan.

Gau ta egun ebilen bere biran ziri ta ziri. Nozik bein andipuzkeri-oldozpenez austen eutson burua, beste batzuetan afokeriz beterikoakaz. Eta, izakera sutsua ebalako, bide okefetik jokatu ezkeru betiko galtzeko afiskuan aurkitzen zan.

Bein, bere afokeria noraño eltzen zan jakiteafen edo, ifibañeka esan eutson amak: «Teresatxo, luñean mun egiten ba-don, txakur txiki bat emongo donat», txakur txiki bat dirutza andia zan Teresentzat eta bera irabazteko asko makurtu beafik ezeban, txiki-txikia zan-eta. Baña—berak diñosku—burua afopuztu yakon eta tente-tente jafirrik, erantsun eutson: «Ez, ene amatxo, txakur txiki barik gelditu nayago dot».

Beste baten auzoko adiskide batzuenera joan bear izan eben. Soñeko dotore lirañena jantzi egiala Teresatxo'ri esan eutson amak bere alaba zañenari, Miren'i. Ofaitiño beso-utsik ez izteko.

Teresatxok asmau ebazan txeñenaren ziririkak. Mutik be ezeban egin, baña bere soin lerdana janzki dotorez edertuta ikustea gurago izan eban. Adin ofetan umeak egin bear daben lez, bardin ardura eutsola erakutsi afen, bere baruan iñoan: «Neure besotxoak zabalik bai ibiliko nintzakela askozaz be lirañago!»



Ain izakera sutsuaz, guraso onak azi izan ezpa-lebe,—berak diño—urteak aufera oso gaiztoa izango zan ufean; baita betiko galdu leitekean ařisku ta zorian jaři be.

Baña Josu'k ardura andiz zainduten eban bere maitale txikia. Okeřeri gustiak onuragaři biurtu eutsozan. Griña dongak ezi ta biotz-samurdun egin eban. Au edo bestea ezegiteko agindutea naiko zan, bere burua-maitakeri ta on-zaletasunařen, ezegiteko.

Onela laster asi zan buru-ukapenak eta onoimen-iñarkunak egiten, eta txereňak izaki txiki makal baten aufean izututa iges egien. Ona emen bein euki eban amesa.

Ařasti baten baratzean zear axea artzen ebiřela, bat-batera, an itzaltegi ondoan txereň izugaraři bi ikusi ebazan. Latsun edo kare-upel gaňean, zoro biuři antzera, jauzi ta ijutika ziarduen, eta oñetan kate astunak eroan ařen, arin eta bizkor ekin be gero.

Lenengotan suzkoak zirudien begiekaz begiratu eben; baña gero, bildur-ikaratuta edo, begi-itxi-edegi baten alkařen leyan upel bařura jausten ikusi ebazan. Laster urten eben bařiro arako zulo eskutu batetik, eta azkenez zalapartaka baratze-ertzekeo janztegian ondatu ziran.

Onen makalak zirala ikusita, an zer egien jakin gura izan eban eta lenengo izu-ikarea iřorik leyora auferatu yakoen... Ta an ebilzen Katxin goři gixajoak mairik-mai, arin eta arnas estuka, bere begietatik alde egin nayan. Nozik bein leyařetatik begiratzeko asmoz auferatzen ziran; baña ondiño an egoala ikustean, bařiro asten eben euren zarata ta ariņeketa amoařtua.

Ames au egirudi bat da. Txereňak bildurti ta koldoařak dira. Ikusi dogun lez, ume makal baten aufean be ezin egon; iges egin bear. Baña txereňari iges eragiteko Teresatxo'ren antzera biotza garbi gorde bear da. Biotza garbi ta gogoa onoimen-usaņez aseta Jaunaren adiskidetasunean bizi diranak dauke bakarık txereňari iges eragiteko beste indar.

SANTI, K. O.

*(Jařaitzeko)*

